

ETXEKO LANDARE-OLIOA  
BILTZEKO ZERBITZUA

ORAIN... ONTZI  
LARANJARA



**LEIOA** *garbi  
eta trukun*

# ETXEKO OLIOA BILTZEKO ZERBITZU BERRIA

Leioako Udalak, Toki Agenda 21 delakoan onartutako zuzentarauak betez, etxeke olioak biltzeko zerbitzu berria abiarazi du, herritarrei birziklapena erraztearren.

Leioako gaikako bilketarako edukiontziei beste kolore bat gehituko zaie: **laranja**. Udalerriko bederatzi gunetan, etxeke olio erabilia birziklatzeko erabiliko diren edukiontzi hauek ikusi ahal izango dituzu.

## ZER EGIN DEZAKET ERABILITAKO OLIOAREKIN?

Etxe gehienetan, sukaldean erabilitako olioak sukaltarritik behera botatzen da. Ohitura horrek kutsadura eragiten du erreketako uretan; izan ere, araztegiek ezin dituzte guztiz berreskuratu olioak duten urak.

Hemendik aurrera, gorde ezazu sukaldean erabiltzen duzun olioak eta erabili olioak biltzeko zerbitzu berri hau. Guztion artean ingurumen hobea eta udalerrira iraunkorragoa lortuko dugu.

## NOLA ETA NON EGITEN DA ZERBITZUA?

Sistema berri honek egungoa ordezkatu du, hau da, olioia furgonetaz biltzearena. Horrela, eta edukiontzi hauei esker, Leioan birziklatzen diren olio litroak areagotzea lortu nahi da, izan ere, olioia birziklatu nahi izanez gero, ez da beharrezkoa izango egun eta ordutegi jakin batzuei egokitzea, gaurdaino gertatu izan den moduan. Sistema berri honek eguneko 24 orduetan funtzionatuko du, etxe eta familiek etekina atera ahal izateko.

**Edukiontzi laranja** berri hauek hurrengo guneetan egongo dira:

- Ikea Barri plaza.
- Artaza kalea.
- Artatzagane.
- Pinueta.
- Lamiako.
- Txorierri.
- Ikea, 2.
- Dr. Luis Bilbao Libano, 23.
- Santa Ana, 24.



## NOLA GORDE DEZAKET OLIOA?

Oso erraza da. Birziklatu nahi duzun olioia plastikozko botila batean gorde ezazu, botila itxi (erroskazko tapoia duen tetrabrikarekin) eta bota ezazu edukiontzi barrura. Beroaren eraginez botila hondatu ez dadin, gorde ezazu olioia hotz.

## ZERTARAKO ERABILTZEN DA OLIO HORI?

Furgonetan bildutako olioia eraldaketa-planta batera eramaten da, eta, bertan, dagozkion prozesuak egiten dira etxeko olioia biodiesel bihurtzeko.

Leioako Udalak, bere ingurumen politikaren barruan, hondakinak biltzeko sistemak egokitzeko, eguneratzeko eta hobetzeko hainbat lan garrantzitsu egiten dihardu azken urteotan. Birziklatzeak duen garrantziaz oharturik, etxeko olio erabilia biltzeko sistema berri honekin ingurumenaren zainketan eta errespetuan aurrerapauso bat ematea espero da. Edukiontzi berriek, 500 litro biltzeko edukiera dute, eta erreketara botatzen zen olio litro kopurua dezentente murriztaraziko dute.

